




ETBn PREKARIETATERIK EZ!

ETBk Hego Euskal Herrirako ENG zerbitzuen kontratazioarako deialdi publikoa egin berri du, eta urtea amaitu baino lehen esleituko du, «eskaintzarik onena» egiten dionari seguruenik. ENGak telebistetako albistegiak besteak beste ekoizteko ezinbesteko taldeak dira, irudia eta soinua kalitatez hartzeaz arduratzen den taldea baita, kamerari eta laguntzaile banak osatzen dutelarik.



Talde hauen lan karga azken urteetan aldatu ez bada ere, talde murrizketa egongo dela aurreikusten da, Nafarroa eta Arabako herrialdeetarako lan txanda erdiko taldeak dezente sustatuko baitira, egun osoko lan txanden kaltean hain zuzen ere, «baliabideak optimizatze-ko» argudio prekarizatzaile erabilia. Hau da, **jendea kalera bota**, eta

gero gerokoak. ETBk kontratatutakoak baino talde gehiago beharko dituenean (beharko ditu eta) azpikontratek **azpi-azpikontratatu** beharko dute, orduka zein langile autonomoak hartuta.

Kontutan eduki behar da ere lan hauek ETBk berak neurri minimoan bada ere egin egiten dituela, EAEko hiriburu bakoitzean talde propio bana baitu. Eta baliabideak optimizatzeke erabiltzen diren azpikontraten lan baldintzei begiratzen badiegu, zerarekin aurkitzen gara:

- **Soldata** gordinak alderatzen baditugu, aldea **erdia** baino handiagoa da. ETBko soldatak 1.751 eta 2.002 eurokoak badira, laguntzailearena eta kamerariarena hurrenez hurren, kontratako langileek 715 eta 1.024 euro «irabazten» dute. Eta hori praktiketako kontratuak erabiltzen ez direnean (%70), edo are gehiago, bekadunak (%0).
- Hilabete amaierara iritsi ahal izateko kobratzen den disponibilitatea soldata gordinaren %25ekoa da kontrataren kasuan. ETBko langileek paira dezaketen ordutegi aldaketa irteera orduarena da, eta «optimizatuen» erabatekoa, **egun osoa sakelako telefonoari helduta**.

EITBko Zuzendaritzak azpikontratazioa «epifenomeno» bezala definitu zuen parlamentuko batzordean, eta argi denez egoera konpontzera jo beharrean okertzeko bidea hartu du.



ETB_n PREKARIETATERIK EZ!

ETB ha sacado a concurso la contratación de servicios de ENG para Hego Euskal Herria, y la adjudicación se dará antes de acabar el año, seguramente a «la mejor oferta». Las ENG son los equipos que recaban con calidad las imágenes y sonidos imprescindibles sobre todo para los informativos, compuestos por sus respectivos/as cámaras y ayudantes.

A pesar de que la carga de trabajo de estos equipos no hayan sufrido variación en los últimos años, se prevé una disminución de equipos, puesto que en los herrialdes de Nafarroa y Araba se fomentarán las medias jornadas en perjuicio de las jornadas completas, utilizando el argumento precarizador de la «optimización de recursos». Es decir, **echar a la gente a la calle**, y luego ya veremos. Cuando ETB necesite más equipos que los contratados (porque los va a necesitar) las subcontratas van a tener que **sub-subcontratar**, bien por horas o mediante trabajadoras/es autónomas/os.

Hay que tener también en cuenta que, aunque a un nivel mínimo, ETB también realiza estos trabajos por sus medios, con sendos equipos en las capitales de la CAPV. Y echando un vistazo a las condiciones laborales de las subcontratas, nos encontramos con lo siguiente:

- Si comparamos los **salarios** brutos, la diferencia va más allá de **la mitad**. Si los salarios en ETB son de 1.751 y 2.002 euros para ayudantes y cámaras respectivamente, en las subcontratas «ganan» 715 y 1.024 euros. Y eso cuando no se utilizan contratos en prácticas (70%), o peor, becarios (0%).
- La disponibilidad que se cobra para llegar a fin de mes es del 25% del salario bruto. La limitada movilidad horaria en ETB no tiene nada que ver con la movilidad total de los/as «optimizados/as», que tienen que estar **todo el día pendientes del teléfono móvil**.

La Dirección de EITB consideró en la comisión de control parlamentaria esta sangrante situación como un «epifenómeno», y está claro que la intención no va precisamente por arreglarla, sino todo lo contrario.

